



LEHIAKETAREN OINARRIAK

BELDUR BARIK JARRERA 2025

MUNGIA



ANTOLATZAILEAK
ORGANIZA



BABESLEAK
IMPULSAN



MUNGIAKO LEHIAKETAN NORTZUEK HAR DEZAKETE PARTE ETA NOLA

Mungiaiko lehiaketan nortzuek har dezakete parte eta nola:

Mungian erroldatuta daudenei edo Mungiaiko ikastetxeetan ikasten duten 12 eta 20 urte bitarteko neska-mutilei zuzenduta dago.

Lehiaketa nagusian parte hartuta, herriko lehiaketan parte hartuko duzu zuzenean.

SARIAK MUNGIAN

Tokiko sariak:

Aurtengo sariak honako hauek izango dira:

1. kategoriako SARIA (talde zein banakakoa): 250,00€
2. kategoriako SARIA (talde zein banakakoa): 350,00€

EPAIMAHAIA MUNGIAKO LEHIAKETAN

Tokiko epaimahaia:

Herriko lehiaketako epaimahaia antolatzaileek diseinatuko dute eta Mungiaiko Udaleko ordezkariak osatuko dute. Hain zuzen ere, berdintasun politikan eta emakumeek jasaten duten indarkeriaren kontrako politikan inplikaturik dauden pertsonak izango dira.

EPAIMAHAIAREN ERABAKIA

Tokiko epaimahaiaren erabakia:

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da eta jakinaraziko zaie irabazleei zuzenean eta Udalaren webgunean (www.mungia.eus) ere argitaratuko da.

Sariak azaroaren 25aren inguruan banatuko dira, Emakumeek jasaten duten Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna dela eta egingo den ekitaldian. Ekitaldiaren data, ordua eta formatua gainerako jardueren inguruko informazioarekin batera argitaratuko da.

LEGE ALDERDIAK

Lehiaketaren lege alderdiak:

Egileek aurkeztutako lanen lagapenak lehiaketa nagusiko baldintza berberak izango ditu; lan horiek Mungiako Udalaren hedabideetan argitaratu ahal izango dira.

Epaimahaiak aintzatespen sariak eman ahal izango dizkie merezi duten lanei.

Mungiako Udalak sariak eman gabe utz ditzake.

MUNGIAKO LEHIAKETAREN KONTAKTUA

Mungiako Berdintasunerako Zerbitzuarekin harremanetan jartzeko:

berdintasuna@mungialde.eus

94.674.10.43 / 747. 414.272

